



## NAHIKO 2007-09 IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

### 5.UD: KOMUNIKABIDEAK. SAIO BEREZIA (2009ko Otsaila): PRENTSA TAILERRA

#### KOMUNIKABIDEAK

Jolasen bidez, Irakaslearen Gidan jasotako helburu eta eduki guztiarekin lotuz, "Komunikabideen Partxisa" jolasean landu dituzten lau arlo zabal hauetan zentratuko da saio berezia:

- Kirolak.
- Zinema, musika, telebista, informatika...
- Artea, literatura, zientzia...
- Gizartea, ekonomia, politika...

Hauetako bostgarren talde bat gehituko diegu saiorako:

- Publizitatea.

#### SAIOAREN ANTOLAKETA

**Neska mutilak elkarrekin** arituko dira saio berezi osoan.

**Espazio bakarra** eskatu dugu eskoletan.

#### **Taldeka jolastuko dira: kazetari taldeka.**

Gehienez 25 ikasleko ikastaldeak daude → gehienez, bost kazetari talde.

Gehienez bost kide talde/familia bakoitzean.

**Taldeak mistoak izango dira**, beti ere, azken saioetan bezala, neska edo mutilaren bat bakarrik eta ahul utzi gabe.

#### HIRU ZATI

Sarrera (denok elkarrekin): AURKEZPENA.	5 m.	10 m.
Prentsa tailerra (kazetari taldeka): ALBISTEGIA.	70 m.	90 m.
Bukaera (denok elkarrekin): ONDORIOAK.	15 m.	20 m.
Denetara	90 m.	120 m.

## 1. ZATIA (DENOK ELKARREKIN): AURKEZPENA (5-10 m.)

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko unea da (ikus gidoiaren hasiera: helburuak eta edukiak):

- **5.U**Dan zer egin duten? Zein jolas? Koadernoak? Zein da gai nagusia? Zer egin duzue? Zer ikasi duzue?
- Zer dira **komunikabideak**? Zein da beraian eska-mutilengan) eragin gehien duena? Zergatik? Berdin azaltzen al dira emakumeak eta gizonak komuniikabide horietan? Zergatik?
- **Jolas bat, saio bat** egingo dugu komunikabideak hobeto ulertzeko, berdintasunarekin zer ikusirik dutena hobeto ulertzeko. Saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, zein materialak erabiliko diren, etabar.
- **Taldeak egin, KAZETARI TALDEAK osatu.** Gehienez bost lan-talde, gehienez bost pertsona talde bakoitzeko (gehienez 25 ikasle)
- Espazioaren antolaketa: demagun lau familia direla.
  - o Talde bakoitzak bere txokoa izan beharko du albistegia prestatzeko.
  - o Karakterizatzen material guztia albo batean (ahal bada mahahi edo banku batean gainean jarriko da.
  - o Albistegia zuzenean egiteko, "erredakzio mahaia" jarri beharko da kazetariak bere atzean eseri eta hitz egiteko. Beste guztiak aurrekaldean beraiei begira.

## 2. ZATIA (KAZETARI-TALDEKA): PRENTSA TAILERRA: ALBISTEGIA (70-90 m.)

**Helburua zuzeneko albistegi bat egitea izango da.**

Guztion artean elementu hauek prestatuko dituzte gero antzezteko:

- Albisteak.
- Elkarrizketak.
- Iragarkiak.

**Talde bakoitzak bere esparrua izango du:**

- Kirolak.
- Zinema, musika, telebista, informatika...
- Arteak, literatura, zientzia...
- Gizarteak, ekonomia, politika...
- Publizitatea

**Talde bakoitzak albisteak eta elkarrizketak** egiteko irudiak eta testuak jasoko ditu plastikozko gutun-azal batean. Bertan, A4 neurrian, elementu hauek egongo dira:

- 8 albiste egiteko 8 irudi. (publizitatearen kasuan, iragarkiak egiteko)
- 8 albiste egiteko 8 irudi. (publizitatearen kasuan, iragarkiak egiteko)
- 2 elkarrizketa egiteko 2 irudi. (publizitatearen kasuan ere bai)

<p>- 2 elkarrizketa egiteko 2 galdetegi (publizitatearen kasuan ere bai)</p> <p>Bai albistek bai elkarriztetek, eskolan erabili duten "Komunikabideen Partxisa" jolasaren pertsonai eta egia-gezurra txartelekin lotura dute.</p>
<p><b>Talde bakoitzak lehenengo prestatu eta gero antzeztu egin beharko du.</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Egiterakoan, lehenbizi euren arloko albisteak egingo dituzte eta gero pertsonaien elkarrizketa.</li><li>- Publizitatea arlo ezberdinen atalean bitartean egingo da.</li></ul>
<p><b>Albistegiaren prestaketak eginbehar hauek ditu:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Irudiak eta testuak elkarrekin lotu bikoteak eginez.</li><li>- Testua oinarriz harturik, euren albistea egin esan behar dutena prestatu. (nahi badute, asmatu egin dezakete).</li><li>- Karakterizatu: kazetari, elkarrizketzeko pertsonai... bezala jantzi, makilatu...</li></ul>
<p><b>Albistegia guztion aurrean egingo da:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Albisteen testu bakoitzak aurpegi edo puntu grisa ala puntu berdea du jarrita aurrean.</li><li>- Ikusleen artean, A5 neurriko puntu hauek dituen txartela banatuko dira, bakoitzak berea izan dezan. Alde batetik puntu grisa eta bestetik puntu berdea du txartelak.</li><li>- Albiste eta elkarrizketa bakoitzaren ondoren, jendeak puntu bat erakutsiko dio kazetariari, grisa ala berdea, ikusitako irudia eta entzundako testuak berdintasunaren aldera ala ez egiten duen adieraziz.</li><li>- Begiraleek adostasuna dagoen ala ez ikusi beharko dute. Zergatiak eskatu, eta abar.</li></ul>

### 3. ZATIA (DENOK ELKARREKIN): ONDORIOAK (15-20 m.)

Atsegina izan dira jolasak? Ondo pasa dute? Gustora egon dira?

Zer izan da errezena, politena, dibertigarriena? Zergatik?

Mutilentzat ere bai? Neskentzat ere bai? Erantzun ezberdinak badaude, zergatik?

Eta zailena, itsusiena, aspergarriena? Zergatik?

Mutilentzat ere bai? Neskentzat ere bai? Erantzun ezberdinak badaude, zergatik?

Zeri ematen diote garrantzi gehiago? Zeintzuk? Zergatik? Zer komentario egon dira?

Zerbaitek lotsa eman die? Nori? Neskei? Mutilei? Zerk? Zergatik?

Nesken eta mutilek berdin jolastu dugu? Froga guztiak egin ditugu? Ez? Frogak berdinak egin ditugu? Zergatik batzuk bai eta beste batzuk ez?

**Albistegia:**

Zein albiste deitu dizuete atentzio? Zergatik?

Zein iruditu zaizue "grisena", zein "berdeena". Zergatik?

Guztietan ados egon zarete puntu grisa edo puntu berdea ematerakoan? Ze desadostasun egon dira? Zergatik?

Zein pertsonai iruditu zaizue grisena? Eta berdeena? Zergatik?

Halako albisteak eta elkarrizketak ateratzen dira komunikabideetan? Nolakoak bestela? Zer aldea dago?

--

EMAKUNDE-NAHIKO  
2009KO OTSAILA

<p><b>6IZARTEA, EKONOMIA, POLITIKA</b></p> <p><b>¿Cómo ha vivido la libertad después de pasar tantos años en la cárcel?</b></p> <p><b>¿Qué ha sido para usted ser el primer presidente negro de Sudáfrica?</b></p> <p><b>¿Cómo ha conseguido que todas las razas convivan sin violencia?</b></p> <p><b>¿Tienen en su país las chicas las mismas oportunidades que los chicos?</b></p> <p><b>¿Cuál debe ser en su opinión el lugar de las mujeres en la sociedad?</b></p> <p><b>¿Cómo podemos acabar con la violencia que sufren las mujeres?</b></p> <p><b>¿Somos iguales blancos y negros, blancas y negras?</b></p> <p><b>¿Somos iguales mujeres y hombres?</b></p>	<p><b>ARTEA, LITERATURA, ZINEMA, MUSIKA, TV, INFORMÁTICA</b></p>
<p><b>6IZARTEA, EKONOMIA, POLITIKA</b></p> <p><b>ZINEMA, MUSIKA, TB, INFORMÁTICA</b></p>	<p><b>ZINEMA, MUSIKA, TB, INFORMÁTICA</b></p> <p><b>CINE, MUSICA, TV, INFORMÁTICA</b></p> <p>Jonas Brothers taldea arrakasta itzela izaten ari da, euren orrazkera bitxiengatik, neska gaztetxo inozo eta tuntunen artean.</p> <p>Los Jonas Brothers están teniendo un gran éxito, gracias a sus peinados raros, entre las jovencitas más tontitas y alocadas.</p>
<p><b>PUBLICITATEA</b></p>	<p><b>ARTEA, LITERATURA, ZIENTZIA</b></p> <p><b>ARTE, LITERATURA, CIENCIA</b></p> <p>Pippi Langstrump pertsonai nagusia da. Neskatila hau pertsona heldurik gabe bizi da. Alaia eta ausarta da, bere lagunen liderra eta lagun handia. Eta beti dago abenturarako prest.</p> <p>Pipi Calzaslargas es el personaje principal. Es una chica que vive sin compañía o tutela adulta. Es alegre y atrevida, líder y muy amiga de sus amigos. Siempre está dispuesta para la aventura.</p> <p><b>5 UD.-KOMUNIKABIDEAK</b> prentsa tailerra saso berezia</p> <p><b>5 UD.-KOMUNIKABIDEAK</b> prentsa tailerra saso berezia</p>